



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025ko otsailaren 28a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-25/PRO-00006. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/PRO-00007. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00026. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita urgentziaz ezar ditzan oinarri juridiko, administratibo eta ekonomikoak, Ezkabako Gotorlekuari erabilera memorialista bat ematea ahalbidetuko dutenak, Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmen baten bidez. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).
- 11-25/MOC-00027. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko aukera-berdintasuna eta sexuagatiko diskriminaziorik eza berma ditzan emakumezkoen kirol-lehiaketetan, bai oinarrizko bai goi mailakoetan, eta horretarako egin behar diren arau-aldaketak susta ditzan. María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztu du (8. or.).
- 11-25/MOC-00028. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan Nafarroan genero-indarkeriaren prebentzioan adimen artifiziala ezartzeko. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (9. or.).
- 11-24/MOC-00057. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun Departamentuaren eta haren mendeko erakunde autonomoen ordainsari-sistemari buruzko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (11. or.).
- 11-25/MOC-00007. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitatean ematen diren ondasun eta zerbitzuen kostuari buruzko informazio-kanpaina bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (11. or.).
- 11-25/MOC-00020. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita segida eman diezaien trantsizio ekologikoaren arloan gogobetegarriak izan diren proposamenei. Osoko Bilkurak onetsi du (12. or.).
- 11-25/MOC-00023. Erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita atzerriko hizkuntzetako ikasketa-programetako irakasleen behin-behinekotasun tasa ken dezan, bereziki Ingelesez Ikasteko Programari (PAI) dagokionez, eta funtzionario publiko modura jarraituko dutela berma diezaien 245 eta 246/2022 ebazpenen arabera egin ziren hautapen-prozesuak gainditu zituzten 352 pertsoneri. Osoko Bilkurak onetsi du (12. or.).

- 11-25/MOC-00025. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu Osoko Bilkurak 2016ko ekainaren 2an onetsitako erabakia betetze aldera beharrezkoak diren neurriak hartzeko. Osoko Bilkurak onetsi du (13. or.).
- 11-24/MOC-00130. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita familiei laguntzeko neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak ezetsi du (13. or.).
- 11-25/MOC-00018. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea proposa dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (14. or.).
- 11-25/MOC-00019. Mozioa, zeinaren bidez inplikaturik dauden erakunde publikoak eta indar politikoak premia-tzen baitira ez dezaten Maravillas Lamberto izena erabil Erorien Monumentuaren etorkizuneko proiektuan. Osoko Bilkurak ezetsi du (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00078. Galdera, Orbital Critical Systems enpresarentzako laguntza ekonomikoei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00079. Galdera, Nafarroako Gobernuaren metabertsoari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00080. Galdera, Klima-aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua eratzeari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00082. Galdera, jakiteko ea Nasuvinsak zergatik ez zuen ekintzarik abiarazi Estudios Melitón zordunaren aurka. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00083. Galdera, Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berrabiarazteari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00084. Galdera, pandemian zehar Nafarroako enpresak NBEz hornitzeko ekimenari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00085. Galdera, SODENaren eta Albyn Medical-en arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari” buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00086. Galdera, SODENaren eta Albyn Medical-en arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VI. puntuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00087. Galdera, SODENaren eta Albyn Medical-en arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VIII. puntuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00088. Galdera, jakiteko zer irizpide baliatu den ezartze aldera zer zenbateko hartu duten beren gain Albyn Medical-ek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak adiskidetasunez likidatzeko “NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenean” SODENarekin ezarritako lotura. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (23. or.).
- 11-25/PES-00089. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikara bideratutako giltzurruneko transplanteei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (24. or.).
- 11-25/PES-00090. Galdera, Artaxoako San Saturnino eliza zaharberritzeko obretarako dirulaguntzei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (25. or.).
- 11-25/PES-00091. Galdera, Albyn Medical enpresari jasanarazitako BEZari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (26. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/QSR-00002. Gora jotzeko errekurtoa, lehiaketaldiko merezimenduen balorazioaren behin betiko emaitzen aurkakoa, honako deialdi honi dagokionez: Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamahiru administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamaika Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta beste bi, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak (27. or.).
- 11-25/QSR-00003. Gora jotzeko errekurtoa, lehiaketaldiko merezimenduen balorazioaren behin betiko emaitzen aurkakoa, honako deialdi honi dagokionez: Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamahiru administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamaika Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta beste bi, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak (28. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00006. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu du, eta eskatu du irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru-lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko

ZIOEN AZALPENA

Gaur egungo etxebizitza-eskariak behartzen du zenbait baldintza tekniko zentzutzerara, eragotzi egiten dute-eta etxebizitza berriak sortzea, dela lokalen edo eraikinen erabilera-aldaketa eginez, dela jadanik badaudenak zatituz nahiz eraikinak zaharberrituz.

Nafarroan, etxebizitza berrien sorkuntzarako oztopo handia gertatzen ari dira Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituen martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuko I. Eranskineko ("Lehendik eginiko etxebizitzetarako baldintzak") 19. artikuluen 5 eta 6. puntuak eta II. Eranskineko ("Etxebizitza batean bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak") 19. artikuluko 10, 11 eta 12. puntuak.

Baldintza horiek zeharo gaindituta geratu dira Eraikingintzaren Kode Teknikoko arauen eskutik, bai eta fatxadako saretetara lot daitezkeen berreskuragailu entalpikoak erabiliz aireztapenek estankotasuna lortzeko joeraren eskutik ere.

Sistema horrek, bai eta aire araztua jaurtitzen duten karbono-iragazkidun erazte-kanpaien hedapenak ere, energia-aurrezpen ohargarria eta osasungarritasun-baldintzen hobetzea eskaintzen dute.

Iruñeko Udaleko talde guztiek jadanik aho batez eskatuta daukate arazuko oztopo horiek ken daitezela.

Horregatik, proposatzen da honako aldaketa hau egitea etxebizitza-legean, zeinaren 34. artikuluan eraikuntza- eta zaharberritze-baldintza teknikoak jasotzen baitira:

Aldaketak egiten duena da apartatu berri batzuk sortu, aipatu aireztapen-sistemak baimenduak izateko beharrezkoak diren baldintzak arautzen dituztenak, horrenbestez, etxebizitza-eskaintzaren areagotzea errazturik.

Halaber, eta ondorioz, apartatu berri bat gehitzen zaio xedapen indargabetzaile bakarrari, jomugatzat harturik Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituen martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuko bi arauak ezabatzea.

Horrenbestez, proposatzen da honako aldaketa hau egitea maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzkoan.

Artikulu bakarra.

Lehen apartatua.

IV. titulua. Etxebizitzen eraikuntza-baldintzak, kontserbazioa eta mantentzea.

34. artikulua. Eraikuntza- eta zaharberritze-baldintza teknikoak.

3. apartatu berri bat eranstea. Hona testua:

3.- Zedularen lorpena errazteko eta, horrela, etxebizitza-eskuragarritasuna areagotzeko, honako baldintza tekniko hauek ezartzen dira etxebizitzen argiztapen- eta aireztapen-baldintzei dagokienez:

3.1.- Eginda dauden etxebizitzak

– Zuzeneko aireztapenik gabeko bainugela handi nahiz txikiek tiro behartuzko aireztapenerako airebide bat eduki beharko dute.

– Eginda dauden etxebizitzen zaharberritzeetan, baldin eraikinaren lurgaineko solairu guztiei eragiten ez badiete, ez da beharrezkoa izanzen sukaldeak teilaturainoko tiro behartuzko aireztapenez horniturik egotea.

3.2.- Egitekoak diren etxebizitzak

– Sukaldeak, bainugela handi nahiz txikiek eta jaki-tokiek airebide bat izanzen dute, DB_HS 3an

ezartzen diren baldintzen arabera, eta loturirik izanzen ez duena ke-kanpai, galdara edo beste zeregin batzuetarakoak direnekin.

– Horrez gain, sukaldeek airebide bereizi bat edukiko dute, horri ke-kanpai bat DB_HS 3k ezarritako baldintzetan atxikitzeko modukoa. Zilegi izanzen da horren ordean sukalderako bertarako hustubidea duten karbono-filtrodun kanpaiak paratzea.

– Eginak dauden etxebizitza-eraikinetan osoko zaharberritzerik egin gabe atondutako etxebizitza berrietan zilegi izanzen da arrazoituz onartzea apartatu honek jasotzen dituen aireztapenak fatxadatik egin daitezela, betiere errespetatuz hirugarrenen nahiz norberaren leiho eta aireztapen-irekiguneetatiko aldente-baldintzak, indarreko araudiari heldurik. Une honetan, honako hau da araubidea:

a.- Airebidea 1,5 metro baino gehiagoko proiektzio horizontaleko distantziara egonzen da hirugarrenenak diren aireztapen-irekigune edo leihoetatik, eta 1,5 metro baino gehiagoko distantziara, hegal-elementu bat dagoenean, edo proiektzio bertikaleko 2,0 metro, hegal-elementurik ez dagoenean. Espaloitik 2 metro baino gehiagoko altueran egon beharko du.

b.- Aire zikinaren aterabideak beste fatxada batzuetan egon beharko dira, edo 5 metro baino gehiagoko distantziara. Edozein kasutan ere, airearen ateratze-abiadura 3 m/seg baino baxuagoa izanzen da.

Bigarren apartatua.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Apartatu berri bat gehitzen da.

e) Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituen martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuko 1. eranskinen 19. artikuluko 5 eta 6. apartatuak eta 2. eranskinen 19. artikuluko 10, 11 eta 12. apartatuak.

11-25/PRO-00007. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen forulege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen forulege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Forulege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Forulege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Forulege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Etxebizitza-eskaintza urria da etengabeko prezio-gorakadaren arrazoi nagusietako bat, halatan etxebizitza duin baterako eskubidea oztopatuta. PFEZari buruzko foru-araudian jasotako alokairu-pizgarri fiskalak mugapen gehiegiren eraginpean daude, halako moldez non haien aplikazioa baldintzatuta geratzen baita, eta beraz urri suertatzen baitira gure legeriak ezarrita dituen helburuak erdiesteko.

Gainera, berriki, Espainiako Gobernuaren lehendakaritzak iragarri du aurki izapidetuko dela aldaketa fiskal bat, honako lege-proposamen honen nondik norakoen ildo berekoa, Estatuaren eskumeneko araubide erkidearentzat.

Horregatik, komenigarria da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina aldatzea, halako moldez non hiri-errentamenduen etekinen ehuneko ehunaren mugaraino igoko baita salbuespen fiskala, errentamenduaren xedea denean etxebizitza ohiko bizileku gisa erabiltzea, Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan inskribatutako kontratuetarako (Erregistro hori araututa dago Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 90. artikuluan).

Hori dela-eta, proposatzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea, jarraian adierazten den moduan:

Artikulu bakarra.

Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuateginaren 25. artikuluko 2. apartatua aldatzea.

2. Aurreko apartatua xedatutakoaren arabera kalkulaturako etekin garbi positiboa honela murriztuko da:

a) Ehuneko 100, baldin eta etekina badator etxebizitza iraunkorrerako higiezin-errentamendutik, zeina arautzen baita Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan. Ondorio horietarako, kanpo uzten dira gelakako errentamenduak.

Murrizketa aplikatuko da errentaren prezioa kokatzen denean etxebizitza-errentamenduko prezioen erreferentziarako estatu-sistemako balio-tartean.

Bigarren apartatu honetan ezarritako murriztapenak aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izanen da errentamendu-kontratua behar bezala erregistratuta

egotea Nafarroako Etxebizitza-errentamenduko Kontratuen Erregistroan, zeina aurreikusita baitago Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 90. artikuluan.

Murriztapenak aplikatzen ahalko dira subjektu pasiboak aitortu egin dituen etekinei dagokienez soilik.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00026. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita urgentziaz ezar ditzan oinarri juridiko, administratibo eta ekonomikoak, Ezkabako Gotorlekuari erabilera memorialista bat ematea ahalbidetuko dutenak, Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmen baten bidez

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita urgentziaz ezar ditzan oinarri juridiko, administratibo eta ekonomikoak, Ezkabako Gotorlekuari erabilera memorialista bat ematea ahalbidetuko dutenak, Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmen baten bidez.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Memoria eta Bizikidetzaren Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzaren Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Duela pare bat aste, Francisco Franco diktadorearen heriotzaren 50. urteurrenaren ospakizunen kariaz, Espainiako Gobernuak iragarri zuen Ezkabako Gotorlekua, zeina Iruñeko Ezkaba mendian baitago, Memoriaren Toki bihurtuko dela 2025ean

zehar, Memoria Demokratikoari buruzko 2022ko Legearen babesean.

Albiste ona inondik ere, baina beste urrats are garrantzitsuago batzuk izan behar dituen ondoren. Funtsean, gobernuen arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea, Ezkabako Gotorlekuari erabilera memorialista bat ematea ahalbidetuko duena.

Erreakzioa munduan izaten ari den goraldia ikusita, memoriaren arloko politika publikoak dira basakeriari eta bidegabekeriari aurre egiteko antidotorik onena, eta hemen badugu memoriaren arloko politika publiko horiek Nafarroa osora, Estatu osora eta are Europara proiektatzeko instalazio garrantzitsu eta ezin hobe bat.

Ezkabako Gotorlekuaren eta 1938ko maiatzaren 29ko ihesaren historia ezagutzen duenak badaki gotorlekua ez dela gure lur honetako sinbolo memorialista bat bakarrik, kontinente honetako borroka antifaxista heroikoen nazioarteko sinbolo ere baita eta bihur baitaiteke.

Horretarako, Espainiako eta Nafarroako gobernuek urgentziaz ezarri behar dituzte instalazio horri erabilera memorialista bat ematea ahalbidetuko duten oinarri juridiko, administratibo eta ekonomikoak.

Baina, batez ere, foru administrazioak proiektu memorialista bat adostu behar du bere memoria berreskuratzearen alde hamarkadak lan egiten daramatzaten elkarteekin. Administrazio publikoak urteetako atzerapenarekin iristen ari dira premiazko lan honetara, eta orain ezinbestekoa da lan horietan militantziaz eta eskuzabaltasunez aitzindari izan direnei entzutea eta haiekin hitz egitea eta adostea.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du urgentziaz ezar ditzan oinarri juridiko, administratibo eta ekonomikoak, Ezkabako Gotorlekuari erabilera memorialista bat ematea ahalbidetuko dutenak, Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmen baten bidez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen ditu, Ezkabako

Gotorlekuari erabilera memorialista bat ematea ahalbidetzen duen hitzarmena adostu ondoren, toki horren memoria berreskuratzeko hamarkadak daramatzaten elkarte memorialistekin adostu dezan proiektu memorialista.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00027. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko aukera-berdintasuna eta sexuagatiko diskriminaziorik eza berma ditzan emakumezkoen kirol-lehiaketetan, bai oinarrizko bai goi mailakoetan, eta horretarako egin behar diren arau-aldaketak susta ditzan

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko aukera-berdintasuna eta sexuagatiko diskriminaziorik eza berma ditzan emakumezkoen kirol-lehiaketetan, bai oinarrizko bai goi mailakoetan, eta horretarako egin behar diren arau-aldaketak susta ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduari 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztzen du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Pertsona guztiok dauzkagu duintasun eta esku-bide berberak. Hala ezartzen du Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua, zeinak legearen aurrean berdinak izatearen printzipioa bermatzen baitu, inolako diskriminaziorik egin gabe jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta.

Halere, eskubide-berdintasun horrek ez ditu ezeztuz gizonen eta emakumeen artean dauden ezberdintasun fisikoak, testosteronak gorputzaren garapenean duen eraginak eta biologiak ezarritakoak. Ezberdintasun horiek ekarri dute emakumezkoen kirol-kategoriak sortzea, lehiaketan ekitatea bermatzeko eta emakumeek baldintza-berdintasunean lehiatzeko duten eskubidea babesteko.

Azterlan ugari eta kirol-lehiaketetako eskarmentuak erakutsi dute gizonezkoen garapen fisikoak –testosteronak pubertaroan baldintzatua– abantaila ematen diela indarrari, abiadurari eta erresistentziari dagokienez. Errealitate hori kirol-esparruan onartu izan da, kategoriak sexuaren arabera bereiztean, hartara bermatuta emakumeek bidezko baldintzetan parte hartu ahal izatea.

Emakumezkoen lehiaketetan gizonezkoen gorputz-garapena duten pertsonak sartzeak egiturazko desabantaila ekartzen die emakumeei, zeren testosteronak eragindako ezberdintasun fisikoak ez baitira zeharo desagertzen hormona bidezko tratamenduekin. Egungo araudiak, zeinaren arabera pertsona transexualek emakumezkoek kiroltan parte har baitezakete irizpide biologiko objektiboari erreparatu gabe, diskriminazio

zuzena sortzen du emakume kirolarien aurka, halako moduan non lehiaketan berdintasunez jarduteko printzipioa urratzen baita.

Hori dela-eta, ezinbestekoa da legedia berrikustea, bermatzeko emakumezkoen kategoriek emakumeentzako bidezko espazioak izaten jarraitzen dutela eta biologiaz bestelako faktoreak oztopo gehigarriak ez izatea kirol-esparruan jarduteko eta aitortuak izateko.

Horregatik guztiagatik, Vox foru parlamentarien elkarteak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Berma dezan egiazko aukera-berdintasuna eta sexuagatiko diskriminaziorik eza emakumez-

koen kirol lehiaketetan, kategoria oinarrizkoa nahiz goi-mailakoa izan, horretarako beharrezkoak diren arau-aldaketak sustatuta.

2. Emakumezkoen kirolean ekitatea susta dezan, bermatuta kategoriak irizpide biologiko objektiboen arabera mantentzen direla eta emakumezko kirolarien eskubideak babestuta.

3. Nazioko Gobernua premiatu dezan estatuan indarrean dagoen araudia berrikustera, bermatze aldera emakumezkoen kategorietan parte hartzeak ez dituela auzitan jartzen kirol-lehiaketetako berdintasuna eta justizia.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/MOC-00028. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan Nafarroan genero-indarkeriaren prebentzioan adimen artifiziala ezartzeko

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan Nafarroan genero-indarkeriaren prebentzioan adimen artifiziala ezartzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Horren jarraipena Lehendakaritza eta Berdintasuneko Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Genero-indarkeriaren eta adimen artifizialaren terminoak batzen ditugunean, gure imaginarioan ikusten duguna da genero-indarkeriaren arloan delitu egiteko erabiltzen dela adimen artifiziala. Hori da azken urteotan ikusten ari garena, non adimen artifiziala eta horren erabilera herritar guztiengana heltzen ari baita erraz-erraz.

Azken asteotan, emakumeok genero-indarkeriaren beste gorakada bat pairatzen ari gara, zeinen ondorio saihestezina emakumeen erailketa baita. Gorakada hori, jaitsi ez ezik, areagotzen ari da.

Emakumeen azken erailketako batek agerian utzi du batzuetan ez dela aski arriskuaren balorazioa detektatzeko tresna posible eta aurreratu guztiak edukitzea, zeren, Málaga-ko azken kasuan, adibidez, arriskuaren balorazioa izan baitzen ez zela halakorik egon; izan ere, harreman guztian zehar ez zen eraso fisikorik izan, eta, hortaz, ez zen onartu erasotzaileari urruntze-agindua ezartzea.

Beraz, beharrezkoa da aurrerabidea egitea genero-indarkeriaren balizko edo etorkizuneko biktimen prebentzioan eta detekzioan, balizko erasotzaileak detektatu bidenabar, zeren VioGén sistema –erasotzailearekiko biktima batek duen arriskua baloratzeko erabiltzen ari dena– ez baita eraginkorra gertatzen ari den zenbait kasutan, eta eraginkortasun falta horren ondorioa zoritzarreko amaiera –emakumeen hilketa, alegia– izan ohi da.

Une honetan eskura daukagu adimen artifiziala genero-indarkeriaren prebentzioari beste modu batean ekiteko, ikuspuntu berri baten bidez emaitza ezberdinak lortzeko eta emaitza horiek positiboak izan daitezen emakumeen bizitzan.

Gutxi badira ere, gaur egun badira azterlanak, eta horietan esaten da egungo eta etorkizuneko adimen artifizialak eragina izan dezakeela genero-indarkeriaren aurkako borrokan, esate baterako detekzio goiztiarrean eta prebentzioan, laguntzan, hezkuntzan, sentsibilizazio-kanpainetan, esku-haritzeen ebaluazioan, datu forentseen analisietan edo horri buruzko jurisprudentzian.

Kataluniako Universidad Obertako Javier Plo Morenoren “Arquitectura de un sistema de ayuda a la prevención de casos de violencia de género en España” azterlanaren arabera, zehazki, datu-sistemei esker dauzkagun datuak analizatuz gero –esaterako, VioGén edo ATENPRO, genero-indarkeriari buruzko kasuetako datu polizial edo judizialak jasotzen dituztenak–, dauden aldagaiak, atributuak edo ezaugarriak ateratzen ahal dira, erabakigarriak direnak genero-indarkeriakotzat hartzen diren indarke-riazko gertakariak gerta daitezen, biktimari nahiz erasotzaileari buruzkoak, eta indarkeriari aurrea hartu.

Adimen artifizialeko sistema berriei esker, datu-baseen analisitik abiatuta, balizko biktimak

sailkatzen ahal dira, arrisku-mailen arabera. Garrantzitsua da sailkapen hori eskura izatea, zeren, pertsona batek salaketa bat aurkezten duenean emandako datuak gorabehera, biktima maila jakin batean sartu ahal izanen baitugu eta zehaztasun handiz aurreikusitako ahalko baitugu bere kasuak zer bilakaera izanen duen eta, hartara, egoera dramatikoetara aurrea hartu.

Jakina, emaitza datu-baseetan aldeztu aurretik jasotako datuen arabera izanen da. Datu-bilketan zuzen egin beharra dago, eta datu horiek ahal den modurik osatuenean prozesatu beharra dago, adimen artifizialaren teknika erabili aitzin. Hori egin ezean, algoritmoek ez dute ezertarako ere balio. Aitzitik, kalte egin diezagukete.

Badakigu lasterketa luze-luzea dela hau, baina lasterketa horri hasiera eman beharra dago, zeren lortzen dugun aurrerabide oro genero-indarkeria pairatzen duen emakume bat gutxiago izan baitaiteke, eta Geroa Bain uste dugu lasterketa hori gure erkidegoan irabaztetik hasi behar dugula.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan Nafarroan adimen artifiziala ezartzeko genero-indarkeriaren prebentzioan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du machine learning sistema bat sor dezan Nafarroan genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

11-24/MOC-00057. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Osasun Departamentuaren eta haren mendeko erakunde autonomoen ordainsari-sistemari buruzko azterlan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 20an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Osasun Departamentuaren eta haren mendeko erakunde autonomoen ordainsari-sistemari buruzko azterlan bat egin dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premia-tzen ditu:

1. Azterlan bat egin dezaten urtebeteko epean, osasun-sistema publikoko profesionalei ordain-tzen zaizkien alderdi guztiak baloratzeko (oinarri-zko ordainsari pertsonala, ordainsari osagarriak eta kalte-ordainak eta bestelako ordainsari bereziak), non osasun-sistema publikoan aritzen diren lan-

postuen definiziorako elementuak jasoko baitira (maila-atxikipena, osasun-lanpostutzat hartzea...), horrekiko-lotura, estamentuen arteko moldakortasuna, halako moduan non optimizatu egingen baita prestakuntzaren arloko inbertsioa edo antzeko lan-profilei lotutako espezializazioa, Europako eremu akademikoari egokitua. Azterlanaren emaitza parte-hartze politiko, sindikal eta herritarrari irekitako formatu batean aurkeztu beharko da, halako moduan non ezarri beharreko ordainsari-oinarri berriek adostasun eta gardentasun handia izanen baitute.

2. Aurreko apartatuan proposatutako azterlana gaian esperientzia duen enpresa independente batek egin dezan”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00007. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Nafarroako Foru Komunitatean ematen diren ondasun eta zerbitzuen kostuari buruzko informazio-kanpaina bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 20an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako Foru Komunitatean ematen diren ondasun eta zerbitzuen kostuari buruzko informazio-kanpaina bat egin dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Nafarroako Foru Komunitatean ematen diren ondasun eta zerbitzuen kostuari buruzko informazio-kanpaina bat egin dezan.

2. Jarrai dezan Nafarroako herritarrentzako hiritar- nahiz tributu-kontzientziatze programak eta zerga-iruzurraren aurkako neurriak sustatzen”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00020. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita segida eman diezaien trantsizio ekologikoaren arloan gogobetegarriak izan diren proposamenei

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 20an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita segida eman diezaien trantsizio ekologikoaren arloan gogobetegarriak izan diren proposamenei. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1.- Moves III Plana berritu dezan edo, kasu bada, antzeko beste bat abiaraz dezan horren ordez.

2.- Energia-iturri berriztagarrien bidezko auto-kontsumo eta biltegitratzerako laguntzei buruzko 477/2021 Errege-dekreturako kreditua handitzen jarrai dezan, agortu egin baitira horretarako esleutako partida ekonomikoak.

3.- Europako erakundeei eska diezaien mantentzarako trantsizio ekologikoa bere esparru eta jarduketa-ildo guztietan garatzeko beharrezkoak diren funtsak.

4.- Azter dezan programa edo proiektu horietarako luzapen automatikoak egiteko aukera, trantsizio ekologikoan ezarritako helburuak lortuzat ematen ez ditugun bitartean”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00023. Erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita atzerriko hizkuntzetako ikasketa-programetako irakasleen behin-behinekotasun tasa ken dezan, bereziki Ingelesez Ikasteko Programari (PAI) dagokionez, eta funtzionario publiko modura jarraituko dutela berma diezaien 245 eta 246/2022 ebazpenen arabera egin ziren hautapen-prozesuak gainditu zituzten 352 pertsoneri

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 20an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita atzerriko hizkuntzetako ikasketa-programetako irakasleen behin-behinekotasun tasa ken dezan, bereziki Ingelesez Ikasteko Programari (PAI) dagokionez, eta funtzionario publiko modura jarraituko dutela berma diezaien 245 eta 246/2022 ebazpenen arabera egin ziren hautapen-prozesuak gainditu zituzten 352 pertsoneri. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Funtzionario publikoaren lanpostuak berma diezazkien lanpostu horiek aparteko egonkortze-prozesuen bidez lortu zituzten pertsoneri, atzerriko hizkuntzako eskakizuneko unibertsitateaz kanpoko irakasleen deialdietan.

2. Berandu gabe egin dezan atzerriko hizkuntzako eskakizuna duten lanpostuen deialdia, programa horietako irakasleen behin-behinekotasun tasa handia murrizteko”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00025. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu Osoko Bilkurak 2016ko ekainaren 2an onetsitako erabakia betetze aldera beharrezkoak diren neurriak hartzeko

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 20an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu Osoko Bilkurak 2016ko ekainaren 2an onetsitako erabakia betetze aldera beharrezkoak diren neurriak hartzeko. Erabakia eragin zuen mozioa Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu zuen, eta 2025eko otsailaren 18ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara. Hona testua:

“1.-Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du beharrezkoak diren neurriak hartzeko

Osoko Bilkurak 2016ko ekainaren 2an onetsitako erabakia betetze aldera, eta atalondoaren lehen-tasuneko tokian plaka bat jarriko du Nafarroan ETA banda terroristaren biktima gertatu zirenak omentzeko, bai eta beste leku batzuetan eraildako nafarrak ere. Plakan biktimen izenak eta hilketaren data jasoko dira.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan ETAREN terrorismoaren ondorioz Nafarroan gertatutako nahitaezko desplazamenduaren errealitate-ari buruz”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00130. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita familiei laguntzeko neurriak har ditzan

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko otsailaren 20an egindako bilkuran, ezetsi egin du María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita familiei laguntzeko neurriak har ditzan. Mozioa 2024ko urriaren 25eko

122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-25/MOC-00018. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko
Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008
Legegintzako Foru Dekretua aldatzea proposa dezan**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko otsailaren 20an egindako bilkuran, ezetsi egin du Irene Royo Ortín andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008

Legegintzako Foru Dekretua aldatzea proposa dezan. Mozioa 2025eko otsailaren 18ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-25/MOC-00019. Mozioa, zeinaren bidez inplikaturik dauden erakunde
publikoak eta indar politikoak premiatzen baitira ez dezaten Maravi-
llas Lamberto izena erabil Erorien Monumentuaren etorkizuneko
proiektuan**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko otsailaren 20an egindako bilkuran, ezetsi egin du Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez inplikaturik dauden erakunde publikoak eta indar politikoak premiatzen baitira ez dezaten Maravillas Lamberto izena erabil Erorien Monumentuaren etorkizuneko proiektuan.

Mozioa 2025eko otsailaren 18ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00078. Galdera, Orbital Critical Systems enpresarentzako laguntza ekonomikoei buruzkoa*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, Orbital Critical Systems enpresarentzako laguntza ekonomikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu azken hamar urteetan Orbital Critical Systems enpresak, egitura edo teknologiako inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzengatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+b laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzeptuengatik?

– Zer zerga-onura (I+G+b jarduerengatik) kenkariak, inbertitzeagatik kenkaria edo bestelako kenkariak) eta zer zenbateko aplikatu ditu Orbital Critical Systems enpresak azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren bere aitortpenetan?

Iruñean, 2025eko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-25/PES-00079. Galdera, Nafarroako Gobernuaren metabertsoari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren metabertsoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

2024ko urriaren 10eko Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuaren metabertsoari buruzko galdera bat egin nion Unibertsitateko, Berrikuntzako eta

Eraldaketa Digitaleko Departamentuko kontseilari ohiari, ahoz erantzun zezan. Eman zidan erantzunean, zenbait iragarpen egin zituen:

1.- Metabertsoa eguneratu/birmoldatzeari dagokionez: Zer enpresa ari da hori egiten? Zer jarduketa eginen dira? Zein da aurreikusitako kostua? Aurrekontuko zer partidaren kargura egiten ari dira? Zer kontratazio-prozedura baliatu da lan horiek egiteko? Noiz amaituko dira gutxi gorabehera?

2.- Zibersegurtasunaren arloko murgiltze-esperientziari eta etxe digitalaren eta zibererasoen prebentzioa dela-eta iragarritako bideojokoari dagokionez: Zer enpresa ari da hori egiten? Zer jarduketa eginen dira? Zein da aurreikusitako kostua? Aurrekontuko zer partidaren kargura egiten ari dira? Zer kontratazio-prozedura baliatu da lan horiek egiteko? Noiz amaituko dira gutxi gorabehera?

3.- Nafarroa Marka metabertsoari dagokionez: Zer enpresa ari da hori egiten? Zer jarduketa eginen dira? Zein da aurreikusitako kostua? Aurrekontuko zer partidaren kargura egiten ari dira? Zer kontratazio-prozedura baliatu da lan horiek egiteko? Noiz amaituko dira gutxi gorabehera?

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/PES-00080. Galdera, Klima-aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua eratzeari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Klima-aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua eratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer egunetan aurreikusten da egonen dela eratuta, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua?

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-25/PES-00082. Galdera, jakiteko ea Nasuvinsak zergatik ez zuen ekintzarik abiarazi Estudios Melitón zordunaren aurka

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, jakiteko ea Nasuvinsak zergatik ez zuen ekintzarik abiarazi Estudios Melitón zordunaren aurka.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Nasuvinsak zergatik ez zuen Estudios Melitónen aurkako ekintzarik abiarazi, Iruñeko Merkataritza arloko 2. Epaitegiaren 2023ko apirilaren 24ko autoa ikusita?

– Sodenak zergatik ez zuen Estudios Melitónen aurkako ekintzarik abiarazi, Iruñeko Merkataritza arloko 2. Epaitegiaren 2023ko apirilaren 24ko autoa ikusita?

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-25/PES-00083. Galdera, Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berrabiarazteari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berrabiarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizki Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuko hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro Garcíak behin baino gehiagotan adierazi du bere departamentuak berrabiarazi egingen duela Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa, 2020tik geldiarazita dagoena.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak nola berrabiaraziko du Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa?

– Zer sistema ezarriko du Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa urtero eguneratu dadin eta, hartara, bere helburua bete dadin?

– Nola bilduko dira etxebizitza hutsei buruzko datuak Nafarroako herri guztietan?

– Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak zer denbora aurreikusten du Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berrabiarazteko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/PES-00084. Galdera, pandemian zehar Nafarroako enpresak NBEz hornitzeko ekimenari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, pandemian zehar Nafarroako enpresak NBEz hornitzeko ekimenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. SODENAK eta Albyn Medical-ek sinatutako "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren" zioen azalpeneko IV. puntuan esaten da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren ekimena izan zela, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren bitartez, Nafarroako enpresak NBEz hornitzea; SODENAK eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak sinatutako akordioaren arabera, berriz, ekimena Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuarena ez beste inorena izan zen. Zergatik?

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, norena izan zen ekimena, departamentuarena ez beste inorena ala departamentuarena Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren bitartez?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-25/PES-00085. Galdera, SODENAREN eta Albyn Medical-en arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari” buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, SODENAREN eta Albyn Medical-en arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari” buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. SODENAK eta Albyn Medical-ek sinatutako “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta

langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko V. puntuari esaten da SODENA konprometitu zela “interesik gabe finantzatzera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren kontura, Albyn Medical-i funtsak aurretiaz ematea, NBEak erosteko”; SODENAK eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak sinatutako akordioaren arabera, berriz, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa irabazi asmorik gabeko laguntzaile hutsa izan zen, NBEak banatzeko kanala abian jartzeko. Zergatik?

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren kontura egin zen ala hori laguntzaile hutsa izan zen?

3. Albyn Medical-ekiko akordioaren V. puntuaren arabera, maskarak erosi ziren “gero Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari emateko”, baina Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekiko akordioaren arabera, berriz, Albyn-ek erosi zituen eta zuzenean, bitartekaririk gabe, eman zizkien enpresei. Zergatik?

4. Nafarroako Gobernuaren ustez, NBEak Albyn-ek Nafarroako Enpresaburuen Konfederaziori eman zizkion ala zuzenean eman zizkien Albyn-ek enpresei?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-25/PES-00086. Galdera, SODENaren eta Albyn Medical-en arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VI. puntuari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, SODENaren eta Albyn Medical-en arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VI. puntuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. SODENAK eta Albyn Medical-ek sinatutako “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VI. puntuan esaten da NBEen soberazko stocka gertatu zela “Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak bere enpresen interesak asetzeko beharrezkotzat jo zituenak baino NBE gutxiago erosi zuelako”; SODENAK eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak sinatutako akordioaren arabera, berriz, stocka gertatu zen “horiek izenpetzean aurreikusi ezin ziren zenbait gertakari izan zirelako bat-batean”. Zergatik?

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, arrazoi bi horietako zeinek eragin zuen stocka?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-25/PES-00087. Galdera, SODENAREN eta Albyn Medical-en arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VIII. puntuari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, SODENAREN eta Albyn Medical-en arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VIII. puntuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

1. SODENAK eta Albyn Medical-ek sinatutako "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE

eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VIII. puntuan esaten da akordioan ez dagoela zehaztuta nola esleitu edo banatu "enpresek NBEak ezarri den kanaletik kanpo erostearen aldeko apustua egin izanaren ondorioz" sortutako galerak; SODENAK eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak sinatutako akordioaren VII. puntuaren arabera, berriz, akordioan zehaztu gabe dagoenak ez dauka zerikusirik apustu horrekin, baizik eta NBEak merkatuko prezioak baino askoz ere garestiago erosi izanarekin. Zergatik?

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, nondik heldu dira galerak?

3. Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekiko akordioaren VII. puntuan, proiektuko galera-kontzeptu gisa azaltzen dira Albyn Medical SLk erosketari, inportazioari, zaintza eta jagoletzari dagokienez bere gain hartutako gastuak (80.843,68 euros). Kontzeptu horiek eta zenbateko hori zergatik ez ziren sartu galera gisa Albyn-ekiko hitzarmenean?

4. Albyn Medical SLk gastu horien justifikaziorik aurkeztu al du? Hala baldin bada, erantzunarekin batera ematea eskatzen du.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-25/PES-00088. Galdera, jakiteko zer irizpide baliatu den ezartze aldera zer zenbateko hartu duten beren gain Albyn Medical-ek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak adiskidetasunez likidatzeko "NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenean" SODENArekin ezarritako lotura

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, jakiteko zer irizpide baliatu den ezartze aldera zer zenbateko hartu duten beren gain Albyn Medical-ek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak adiskidetasunez likidatzeko "NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenean" SODENArekin ezarritako lotura.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zer irizpide baliatu da ezartze aldera zer zenbateko hartu duten beren gain Albyn Medical-ek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak adiskidetasunez likidatzeko "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenean" SODENArekin ezarritako lotura?

2. Zer irizpide baliatu da ezartze aldera nola ordaindu Albyn Medical-ek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak beren gain hartutako zenbatekoak, adiskidetasunez likidatzeko "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenean" SODENArekin ezarritako lotura?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-25/PES-00089. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikara bideratutako giltzurruneko transplanteei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikara bideratutako giltzurruneko transplanteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak 2023an berritu zuen, 2028ra arte hain zuzen ere, osasun-laguntza emateko kontratua Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin (ospitaleratzea, kanpo-kontsultak, azterketa diagnostikoak, tratamendu bereziak, kirurgia-prozesuak eta transplanteak).

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

2024an zenbat pertsona bideratu dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora giltzurruneko transplantea egiteko? Zehaztu zein zen pertsona horietako bakoitzaren larritasuna (G1-G2-G3-G4) eta Nafarroako Klinika Unibertsitariora bideratutako giltzurruneko transplante-prozedura bakoitzaren kostua.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-25/PES-00090. Galdera, Artaxoako San Saturnino eliza zaharberritzeko obretarako dirulaguntzei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Artaxoako San Saturnino eliza zaharberritzeko obretarako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun diezaien:

2006tik 2009ra bitarte zaharberritze-lanak egin ziren Artaxoako San Saturnino elizan. Nafarroako Gobernuak dirua jarri zuen obra horietarako.

Horrenbestez, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1. Zein izan zen, guztira, Artaxoako San Saturnino elizan 2006tik 2009ra bitarte egindako zaharberritze-lanen zenbatekoa?

2. Zein izan zen Nafarroako Gobernuak kontzeptu ezberdinak direla-eta emandako dirulaguntzen zenbatekoa? Zer urtetan ordaindu ziren dirulaguntza horiek?

3. Artaxoako parrokiari ez zitzaion inolako baldintzarik ezarri dirulaguntza kobratzeko edo, aitzitik, baldintzaren bat ezarri al zuen Nafarroako Gobernuak erabilerari, bisitei, sarreraren prezioei nahiz beste zernahiri buruz? Erantzuna baiezkoa baldin bada, zeintzuk izan ziren baldintza horiek?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00091. Galdera, Albyn Medical enpresari jasanarazitako BEZari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Albyn Medical enpresari jasanarazitako BEZari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

SODENAK, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta Albyn Medical-ek lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmen bat sinatu zuten, pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko. Hitzarmen haren ondorioz SODENAREN eta Albyn Medical-en artean sortu zen lotura adiskidetasunez eta behin betiko hausteko akordioaren 1 i) puntuan

adierazten da Albyn Medical-ek 136.338 euro ordainduko dizkiola SODENARI (Albyn Medical-ek akordioaren arabera erositako NBEen BEZa, hain zuzen ere), zeren Albyn Medical-ek diru-kopuru hori murriztu baitzuen NBEak erostean hirugarrenei jasanarazitako BEZean.

1. Zenbat diru zegoen kontu horretan puntu horretako bigarren paragrafoan aipatzen den transferentzia egin aitzin?

2. Zenbat diru gelditu zen transferentzia egin ondotik?

3. Kontu horrek irekita jarraitzen al du? Irekita jarraitzen baldin badu, zenbat diru dauka? Irekita ez baldin badago, noiz itxi zen eta nola likidatu zen bertan zegoen dirua?

Likidazio horien xehetasunak ezagutu nahi ditut.

4. Maskarak erosteagatik Albyn Medical-ek kendutako dirua zergatik zegoen SODENAREN eta Albyn Medical-en arteko kontu komun batean?

5. SODENAK zergatik pentsatu du Albyn Medical-ek BEZa dela-eta kendutako dirua –NBEak erostean hirugarrenei jasanarazitako zenbatekoan murriztua– SODENAREndako galdera ekonomiko bat dela, konpentsatu beharrekoa?

6. Hori al da antzeko beste kasu batzuetan hartu ohi den erabakia, erositakoa saldu ezin izan dela-eta kendutakoa jasanarazi ezin izan denean?

Iruñean, 2025eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/QSR-00002. Gora jotzeko errekurtoa, lehiaketaldiko merezimenduen balorazioaren behin betiko emaitzen aurkakoa, honako deialdi honi dagokionez: Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamahiru administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamaika Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta beste bi, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, lehiaketaldiko merezimenduen balorazioaren behin betiko emaitzen aurkakoa, honako deialdi honi dagokionez: Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamahiru administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamaika Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta beste bi, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak (Mahaiaren 2023ko ekainaren 14ko Erabakiaren bidez onetsi zen –2023ko ekainaren 30eko 137. NAO n argitaratu zen–, eta geroago, Mahaiaren 2024ko otsailaren 26ko Erabakiaren eta 2025eko urtarrilaren 13koaren bidez aldatu zen).

Deialdi horren esparruan, M.^a José Fernández Fernández andreak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu du oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari-lanpostuak betetzeko deialdiko lehiaketaldiko merezimenduen balorazioaren behin betiko emaitzen aurka.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118. eta 45. artikuluetan ezarritakoaren arabera, interesdun guztiei jakinarazten zaie alegazioak aurkeztu ahalgo dituztela iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita gehienez ere hamar egun balioduneko epean. Alegazioak Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikokoan eskuragarri dagoen eskabidearen bidez aurkeztu behar dira (<https://parlamentodenavarra.es>); hain zuzen ere, Administrazio-izapideak / Langileria-deialdietako eskabidea atalean.

Gora jotzeko errekurto horren kopia lortzeko, interesdunek modu telematikokoan eskatzen ahal dute errekurtoa bidal dakien. Eskaria Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikokoan eskuragarri dagoen eskabidearen bidez egin behar da (<https://parlamentodenavarra.es>); hain zuzen ere, Administrazio-izapideak / Langileria-deialdietako eskabidea atalean.

2. Agintzea argitara dadila erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/QSR-00003. Gora jotzeko errekurtsua, lehiaketaldiko merezimenduen balorazioaren behin betiko emaitzen aurkakoa, honako deialdi honi dagokionez: Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamahiru administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamaika Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta beste bi, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, lehiaketaldiko merezimenduen balorazioaren behin betiko emaitzen aurkakoa, honako deialdi honi dagokionez: Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamahiru administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamaika Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta beste bi, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak (Mahaiaren 2023ko ekainaren 14ko Erabakiaren bidez onetsi zen –2023ko ekainaren 30eko 137. NAOn argitaratu zen–, eta geroago, Mahaiaren 2024ko otsailaren 26ko Erabakiaren eta 2025eko urtarrilaren 13koaren bidez aldatu zen).

Deialdi horren esparruan, Marta Campi3n Larumbe andreak gora jotzeko errekurtsua aurkeztu du lehiaketaldiko merezimenduen balorazioaren behin betiko emaitzen aurka, honako deialdi honi dagokionez: Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamahiru administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamaika Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta beste bi, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118. eta 45. artikuluetan ezarritakoaren arabera, interesdun guztiei jakinarazten zaie alegazioak aurkeztzen ahalko dituztela iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita gehienez ere hamar egun balioduneko epean. Alegazioak Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eskabidearen bidez aurkeztu behar dira (<https://parlamentodenavarra.es>); hain zuzen ere, Administrazio-izapideak / Langileria-deialdietako eskabidea atalean.

Gora jotzeko errekurtsu horren kopia lortzeko, interesdunek modu telematikoan eskatzen ahal dute errekurtsua bidal dakien. Eskaria Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eskabidearen bidez egin behar da (<https://parlamentodenavarra.es>); hain zuzen ere, Administrazio-izapideak / Langileria-deialdietako eskabidea atalean.

2. Agintzea argitara dadila erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias